



“Sekula ez nau kezkatu argazkia artea den ala ez”

Gari Garaialde

Hatzari bakarrik ez, kaskoari ere eragiten dion fotokazetaria.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen filosofia garaikidea: argazkiak egiten ditut, beraz, banaiz.

Oporretan ikusi eta barregura sortzen ziguten japoniar haien antzeko bihurtu gara. Argazkia egiteak berak hartu du garrantzia, argazkian gorde nahi dugunak baino.

Argazkilaritza demokratizatu egin da. Edo urardotu?

Boterearen kudeaketa izan ezik, demokratizaten den guztia urardotzen da. Elite baten esku egoteari utzi eta edonork egin dezakeenean, argazki hutsalak aurkitzeko aukera igo egiten da, baina gauza interesgarriak aurkitzekoa ere bai.

Azkar aurkitu beharko, ez zaizkio-eta egun asko-asko geratzen argazkilaritzari.

Telefono guztiek argazki kamera bat edo gehiago izanda, nola esan daiteke ez zaizkiola egun asko geratzen? Beste zerbaitekin izan daiteke argazkilari profesionalaren figura.

Argazki molde tradizionala hil da, behintzat; biba argazki digitala!

Euskarri aldaketak ez nau kezkatzen, historiak berdin kontatu daitezke eta. Aldiz, egia da euskarria aldatzearekin erabilera batzuk aldatu egin direla.

Paradigma aldaketa bizi dugu, eta kexu gara gainera.

Aldaketak beti eragiten dizkigu trabak, jokatzekeo molde berriak topatu behar baitira, baina aldaketa berez ez da txarra, norantz aldatzen garen da kontua.

Erregistroa, egia, memoria, artxiboa, identitatea, fragmentazioa... Non geratuko dira baloreak?

Erregistroa, memoria, artxiboa... berezko dauzka argazkiak. Lehen ere horren kontzientziarik gabeko askoren argazkiengatik dauzkagu igarotako garaien irudiak. Orain gauza bera gertatuko da.

Eta argazkiak ez du gezurrik esaten; bai, ordea, argazkilariak.

Egiarik ere ez du esaten argazkiak, hori ere argazkilari edo argazkiaren erabilpenaren ondorioa izaten da.

Argiaren artea ez da izango hemendik aurrera; ea argitasunarena den.

Sekula ez nau kezkatu argazkia artea den ala ez.

Esan egia: lanpostua galtzeak kezkatzen ditu argazkilariak.

Denok kezkatzen gaitu lanpostua galtzeak, guk ere jaten baitugu, eta zergak pagatzen; baina neure soldata galtzeaz gain, fotokazetaritzaren funtzioaren desagertzeak ere ematen dizkit buruhausteak.

Argazkiak paperezko hedabideetan: beharrezkoak, gutxiago idazteko besterik ez bada?

Eta irakurleari orrialde irakurterrazago eskaintzeko, kolorea sartzeko, kazetaria bertan izan zenaren sentazioa emateko... informatzeko izan ezik. ■

